

PURO BARBER



Aukeratutako ideia

Gure ideia ileapaindegi bat sortzea da. Gure ustez, gaur eguneko Durangoko ileapaindegiak hainbat arazo dituzte, adibidez, mozteko ileapaindegira joan behar zara bai edo bai eta ez dago zure etxera edo ondo etortzen zaizun lekura mozteko joaten den ileapaindegirik; orain kobid-arekin arriskuan dauden pertsonak nahiago dute ez egotea beste pertsonekin; batzuetan denbora asko egoten zara itxaroten aspertzen, ezer ez egin barik...



Baina ez ileapaindegi normal bat, baizik eta gizonentzako ileapaindegi moderno bat, bereziki, gazteentzako. Lehenbizi dekorazio berezi bat izango du, iraganeko pelikuletako bat bezalakoa. Gazte gehienek play-ra jolastea eta musika entzutea gustuko dutenez, gure lokala play-a eta musika ipiniko dugu. Normalean, ileapaindegi guztietan ordua hartzeko, lokalera deitzen da, baina guk deitzeko aukera eta aplikazio baten bidez ordua hartzeko aukera emango dugu.

Amaitzeko furgoneta batean ere moztuko dugu ilea, bezeroak deitzen digute edo aplikazioan helbidea ematen digute eta gu furgonetarekin joaten gara gure zerbitzua eskaintzera. Jadanik, emandako helbidean gaudenean ilea etxeetan edo gure furgoneta barruan bertan moztu dezakegu zerbitzu dibertsituagoa eskaini ahal izateko eta, ondorioz, erosotasuna handiagoa da hobeto etortzen zaion zerbitzu mota kontratatu dezala.

